



# euskal alfabetoa

## nola solastu

### solastu bakarra

Puzlearen zati bakoitzak irudi ahokagarri bat dauka, sartu eta ateratzen dena. Lehendabizi, irudi ahokagarri guztiak jarri behar dira dagokien puzzle zatietan. Horretarako, irudi hauetarik bakoitzak atzealdean inprimatuta duen letra erabiliko du haurrak laguntza gisa, edo siluetak duen forman oinarrituta kalkulatu du non kokatu behar duen irudi bakoitza.

Ondoren, puzzlea osatuko da. Hasieran, haurrak letren ordena zein den ez badaki, bi bide erabil ditzake puzzlea osatzeko:

- 1 puzzlearen kaxan agertzen den irudia erabiltzea eredu gisa.
- 2 ohiko puzzleetan legez, zati bakoitzarekin ondo uztartzen den zatia aurkitzen saltzea.

Bukatzeke, foamezko letrak hartu eta dagokien puzzle zatietan gainean jarriko ditu umeak.

Puzzlea alderantziz ere egin daiteke, hau da, lehendabizi puzzlea osatu eta, ondoren, irudi ahokagarriak dagokien tokian sartu.

Komeni da irudi guztiak mahai gainean edo behegainean gora begira ondo zabaltzea, haurrak zati guztiak bistan izan ditzan.

### solastu bat berrituz beharso berrituz

Haurren artean puzzlearen zatik banatuko dira, zarpina zati, esaterako. Hasierako zatia duen haurrak hasiko du jokoak. Partideek brandak jarraituko dute. Dagokien jokalariek puzzlearen hurrengo zatia badauka, ipini egingo du, eta besteia, hurrengo jokalaririk jarraituko du jokatzeko. Irabazleak izango da bere zatik lehendabizi kokatzen dituenak.

### hasieran isuntzarekin

Behin puzzlea osatuta dagoenean, honako hau egin daiteke:

- 1 Irudi bakoitzean ikusten duena azal diezagula eskutako diogu haurriari. Galderekin bartzet bere komunikaziorako kompetentziak aberasten lagunduko diogu. Esaterako, *jirofa* hitza abiapuntutzat hartuta: "Ikusi duzu inoliz jirofarik? Zenbat hanka daukate? Badakizu zer jaten duten?..."
- 2 Irudien izenak banan-banan esanaraztea umeari. "Hau ahoa da, hau barraskiloa, hau campinga..." Irudien bat ezagutuko ez balu, helduak esan beharko lioke umeari zer den.
- 3 Jarraian, elementuaren izena eta letren arteko loturaz jabetzen lagunduko diogu: "Letra hau 'a' da, horregatik hemen dagoen irudia, aho batena da, 'ahoa' hitza, 'a' letrez hasten delako: A...hoa. Hurrengo letra hau, 'be' delitzen da, eta hemen daukagun irudia barraskilorena da, 'be' letrez hasten delako". Eta honela banan-banan, letra guztiak aztertu arte.

4 Ikusi-makusira jolastuko gara. Horretara, a letraz hasten diren hitzak bilatuko ditugu, edo be letraz hasten direnak: "Ikusi makusi, zer ikusi? Ikusten dut, ikusten dut... O!" Eta helduaren eta umearen artean letra horrez hasten diren hitzak aurkituko dituzte.

5 Idatzita dauden hitzak irakurriko ditugu. Haurriari berari ere eskatuko diogu hitzak irakurtzea, ahal duen neurrian. Horretarako, komeni da gelan erabiltzen den metodologia kontuan hartzea, une bakoitzean egokien den letra mota erabiliz.

6 Irudi ahokagarriak hartu eta sailkapenak egitera jolastuko gara: "Animaliak direnak eta ez direnak; etxeetan egoten direnak eta ez direnak; pertsonak direnak eta ez direnak..."



ESAR sailkapena: Muntatzeko jolasa: Disposizio-jolasa.

Ezaugarriak: 28 zatiko puzzlea, behe gainean osatzeko. Zati bakoitzean alfabetoko letra bat eta letra horrez hasten den elementu baten irudia. 27 foamezko letra larri eta 27 irudi sartu eta ateratzekoak (ahokagarriak).

Gaitasunak: Ikuste-hautesmata, aditasuna, espazio-orientazioa, begi-esku koordinazioa, komunikazioa eta sozializazioa.

### Curriculum arloak:

Haur Hezkuntza: Nortasuna eta autonomia pertsonala (jolasa eta mugimendua); Ingurune sozial eta fisikoa (ingurua eta gizarte bitzita); Komunikazioa eta errepresentazioa (ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia).

Lehen Hezkuntza: Ingurune Natural, Sozial eta Kulturalaren ezagupena; Euskara, Gatzelania eta Literatura (Euskara).

Edukia: Alfabetoko letrak, oinarriko hiztegia.

Adina: 3+

© 2007, BIE

Edukiaren garapena: Nerea Arregi, Iratxe Gerediaga.

Irudiak: Mikel Louvelli

Hizkuntza aholkulariak: Asier Irizar, Lierni Landa

Diseinua: Lea multimedia

LG: BI-952-07

Bizkaiko Ikastolen Elkartea

Izer kalea, 8, behea

48340 Zornotza

Tel: 94-435-43-40 Faxa: 94-435-43-41

E-mail: bie@ikastola.net

www.biekastola.net www.ikastola.net



Kultura Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru  
Aldundiarren  
Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.

Eskubide guztiak gordeak.  
Kaxa hau gordetzea gomendatzen dugu,  
informazio hau ez galtzeko.

36 hilabete baino gutxiagoko  
umeentzat arriskuak izan daitezke  
puzzle honetako zatik.

